



BIBLIOGRAFIA

Lur hiztegi entziklopedikoa: Historia eta geografiaren alorraren ardura: Josean Elozegi.

Atezabal Turismo entpresak argitaratutako materiala.

Urduñako Udalak argitaratutako Hiriaren gida.

Arratia-Nerbioi web orrialdea.

Urduñako Hiria web orrialdea: www.orduña.org

EGILEAK

4. Mailakoak:

Abasolo Etxeguren Illan
Carollo de Almeida, Salomon
Duraffourg Madaria, Aitor
Durana Cuadra, Uxue
Velásquez Anguaya, Ñustan Belén
Zubizarreta García-Escudero, Ainoa

5. Mailakoak:

Albizu Lekuona, Mikel
Boga Goitia, Josu
Cuadra Fernández, Goizane
Esculta Linde, Iagoba
Gamboa Menbrives, Jokin
Larrieta Lartundo, Ander
Veiga Sánchez, Sandra

ZEANURI



KOKAPENA:

Zeanuri Europako hego-mendebaldean, Iberiar penintsulako iparraldean, Bizkaiko hegoaldean, hau da, Arabako iparraldeko mugan, eta Arratia eskualdean kokaturik dago.

Bere mugak hauek dira: Iparraldean Areatza eta Artea, mendebaldean: Areatza eta Orozko, ekialdean Dima, eta hegoaldean: Zuia, Zigoitia eta Ubide.

Azalera: 67,46 km² –takoa da eta 2005. urteko biztanlegoa: 1.243 biztanle. (1)

Zeanuriko plaza 170m-ko garaieran kokatuta dago eta parrokia 200m-tara. Bere auzo garrantzitsuenak hauek dira: Ipinaburu, Alzustza, Otzerimendi, Iburguen, Artzuaga, Undurraga, Asterri eta Uribe. (Imanol Cañas eta Eneko Lòpez)

DESKRIPZIOA

Zeanuri Arratiako eskualdearen hegoaldeko eremu menditsuan kokaturik dago.

Herri euskalduna da eta bertako euskara, Bizkaiko Arratiera. Euskaldunak %95a dira. (2)

Herrigunea troka batetan, Arratia ibaiaren ondoan, 170 metroko garaieran aurkitzen da eta parrokia 200m-tako garaieran, Elizondo auzoan, plazatik 800m-tara kokaturik dago. Zeanuriko mendi garrantzitsuenak hauek dira: Gorbeia 1481m, Aldamin 1302 m, Igalarrintza 1296m, Arralde 941m , Abaro 658m eta ekialdean, nahiz eta tontorra Dimako lurraldean izan, Altungana eta Urrekoatxa Kantauri itsasora bere ura isurtzen duen Arratia ibaia, Gorbea mendiko magalean sortzen da, Zeanuriko barrutian eta herri osoa zeharkatzen du. Arratia ibaiaren ibaiadarrak, errekek, hauek dira: Legorrandi, Uguna, Ibergotxe, Altzuaga, Belen, Orue, Uribe eta Itzuna. Mediterraneo itsasora bere ura isurtzen duen ibaia, Zubizabal erreka da. Zeanuri herrian zuhaitzi ugari daude: Pinudiak, izeiak, pagadiak, hariztiak, gaztainadiak, urkidi, haltzadi eta lariztiak. Beste zuhaitz batzuk ere badaude: ametzak, gorostiak,... eta fruitu arbolak. Animalia ugari dago Zeanurin: Etxabereak: Behiak, zekorrak, basabehiak, behorak, ardiak, zaldiak, txarriak, untxiak, oiloak,... eta desagertzeko zorian astoa.

Basapiztiak: Basurdea, oreina, ogigazta, azkonarra, azeria, saia, mirua, e.a. Desagertzeko zorian igaraba dugu. (3)

HISTORIA ETA ONDAREA

Arratiako merinaldeko elizatea, Bizkaiko Jaurerriko hedatuena da. Politika-jaurtzerako fidel bi zeuzkan, Gernikako Batzar Nagusietan 67 zenbakidun jesarleku eta botoa zeuzkala, honekin batera biztanleriak urtero hautatu eta, XVI. mendean ezarri ziren aginte araudien arabera, kontsumorako produktu batzuen (ogia, bakailaoa, olio, ardoa,...) prezio pisu eta neurriak kontrolatzen zituen jaurtzaile bi zeuzkala. Parrokia X. mendean eraiki zuten Bizkaiko Jaunen nekazari kolonoak, Andra Mariari eskainia. 1720. urtean hedatua eta berreraikia izan zen. Mende bat geroago, Axpeko oinetxearen jabeak aurkeztutako errazio osoko lau onuradun abadek zerbitzatzen zuten, Felipe IV.ak 1631ko uztailaren 2an Martin de Axpe y Zarate, bere aurretikoari eman zion errege-mesedeagatik, oinetxeak, betiko patronu modura, hamarrenen ardura ere bazeukala. Etorki honetakoak hurrengoak izan ziren: Martin de Axpe y Sierra, Palenciako gotzaina eta bere anaia Juan Garcia de Axpe, Felipe III. Gaztelarriko Erret kontseiluko entzulea. Beste oinetxe eta armadunak Arrikibat, Arrealdegi, Gansasegi, Añibarro, Zubiaur, Ozerin,... Ipiñaburuko lurraldeetan kokatzen den beste parrokia Santiago Apostoluari eskainia zen. Ipiñaburuk Zeanuritik bereiztu eta Gernikako Batzar Nagusietan jesarlekua eta botoa zeukan fidel arautzailea izendatzea lortu zuen baina, Jaurerriaren aldetik gaitzetsia izanik, bere antzinako esparruan birsartu behar izan zuen. Elizea baselizaren kategoria aldatu zen eta gero, berriro, parrokia bihurtu zen. (4)

Berritzegunea

3 – 2 - Dorretxeak: XIII. gizaldiaren azken hamarkadetan, dagoeneko igarrian zegoen krisi sakonak, XV. gizaldira arte luzatu zenak, azken muturreraino eraman zuen sasoi hartako gizartea osotzen zuten taldeen arteko istiluak.

Dorretxeak funtzio asko zituen: jabearen bizi-leku zen, haren eta bere leinuaren babeslekua eta “enpresa” txikiaren ekoizle aldi berean ; errota edota burdinola zeukaten ezinbesteko osagarri legez eta merkataritzako ibilbideetatik hurbil zeuden. Sarri askotan baseliza haren inguruan egoten zen. Horrenbestez, botere militarari ekonomikoa eta erlijiosoa gehitzen zitzaizkion.

Tipologia berekoak dira orokorrean eraikinak. Eraikin kubiko edo bertikalak, inolako oinarriren gainean altxatutako horma lodiekin, ia leihorik ez zeukatenak beheko solairuetan . Hutsuneak estuak eta altuak izaten ziren eta sarrera – ate bi zeuzkaten.

Zeanuri elizatean bost dorretxe egon zirela idatzi zuen. Labayruk: Akauri, Arrikibar, Gortazar, Ganadegi eta Altzibar. Azken hirurak desagertuta daude gaur egun.

Zulaibar auzuneko, ibar txikitxo batetan dago Akauri dorretxea. Oin karratudun eraikin kubikoa, lau haizetako gainarekin. Neurri desberdinetako errekarritz dago eginda eta ertzak harlanduz.

Axpe Jauregiak, XVII. gizaldiko eraikinak, estilo errenazentista eta herrikoia biltzen ditu eta Uribe auzunean dago.

Ipiña Jauregia, XIX. gizaldiko neoklasiko tankeradun eraikina Ipiña auzunean dago, Santiago ermitaren aurrez aurre.

Zubiate Jauregia, gaur egungo eraikina dugu; Zeanuriko plaza ondoan dago, hirigunean, Bilbo-Gasteiz errepidearen eta Zeanuritik Ipiñara garamatzan bidearen ertzean. Hesitutako lorategiak inguratzen du eta haren alde batean dago San Antonioren gurutze-tokia, ermita. (5)

ZEANURIKO POPULAZIOAREN BILAKAERA:

1900. urtean 2.505 biztanle zituen

1910. urtean 2.376 ” ”

1920. urtean 2.447 ” ”

1930. urtean 2.346 ” ”

1940. urtean 2.346 ” ”

1950. urtean 2.720 ” ”

1960. urtean 2.552 ” ”

1970. urtean 1.723 ” ”

1980. urtean 1.309 ” ”

1990. urtean 1.161 ” ”

2000. urtean 1.199 ” ”

2005. urtean 1.243 ” ”

Datuen arabera Zeanuriko herriak biztanlerik gutxien izan zuen urtea 1994a izan zen (1.126) eta gehien 1955a (2.774) *1 Udaletxeko informazioa

OHITURAK, ERRITOAK, KONDAIRAK...

Ogia: Janari sakratua da. Ez da inoiz bota behar, ebaki baino lehenago aitzoarekin gurutze bat egiten zaio eta lehenengo zatiari muin egiten zaio mahaira atera orduko. Ogia ez da inoiz azpikoz gora jarri behar, horrela jartzen bada, purgatorioko arimak negar egingo dutela esan ohi da. Gabon gauean erabiltzen den ogia bedeinkatuz hartzen zen eta zati bat urte osoan gordetzen zen. Zati hori, ez da urdintzen urtean zehar eta txakur amorraturik agertuz gero beraiei ematen zaie. Ogia familiako hilobira ere eramaten zen, eskaintza bezala.

Ura: Oso garrantzitsua izan da eta ohitura eta errito askotan agertzen da.

Udaberrian baselizan, meza entzun ondoren soroak eta uztak bedeinkatzen ziren euri gutxi egiten zuenean, errogatiba egiten zen Andra Mari elizan; hiru egunetan jarraian egiten zen, elizari bira eman eta letaniak abestuz.

Txarri hilketa: Ohitura denez, ilberan hiltzen da, eta ilberaren barruan “asegunetan”.

Antzina, txerria ilgoran hil ezker, odolari bitza egiten zitzaiola uste zen.

Berritzegunea

Hilketa, eguna zabaltzen zenean egiten zen. Txerria hil ondoren, erre baino lehen “barauzkarria” egiten zen, hilketan parte hartu zutenentzat. Txerria hiltzea eta zatitzea gizonen lana izaten zen, eta beste eginkizun guztiak emakumeenak izaten ziren.

ETXEA BABESTEKO ERABILTZEN ZIREN ERRITOAK

Etxea sakratua izan da eta babesteko era ezberdinak erabili izan dira:

Kardu-latza: atea gainean ipintzen zen sorgin eta lamiak izutzeko. Landare hau eguzkiaren ezaugarritzat hartzen da.

Gurutzeak: leiho eta ateetan ipintzen ziren, etxe horretan bizi zirenak babesteko, eta maldizioak ez sartzeko. Teilatueta ere, teilak gurutze forman jartzen ziren, aurreko funtzioa betez.

Erramua: “Erramu-domekan” bedeinkatutako ereinotza, etxe atarian eta etxe barruan jartzen zen, etxea tximistetatik babesteko.

Orain ere, etxe berri bat eraikitzen denean, erramu bat jartzen da teilatuan.

BESTE OHITURA BATZUK:

SAN JUAN GAUA

San Juan bezpera gauean ohitura denez, sua egiten da. Su horretatik galtzuaz egindako txorta bat, eskutea, pizten zen eta munarik muna ibiltzen ziren neskato-mutikoak, ondoko hau abestuz:

San Juan bagilean
denbora ederrean
zapoak eta sugeak erre
artoak eta gariak gorde
San Juan dela portale.

San Juan egunean, goizean goiz San Juan haritza ipintzen da etxe guztietako atarietan. Ohitura da urte guztian etxeko atarian mantentzea.

AMA BIRJINA

Zeanuriko auzo batzutan ama birjina etxerik-etxe erabiltzen da. Etxe bakoitzean gau bat egoten da, eta otoitz egin eta limosna ematen zaio.

Zeanurin bertan, gauza bera egiten da San Antoniorekin.

SAGUZAHARRA

Ohitura da ere, umei esne hagin bat erortzen zaienean, hagina teilatura bota eta ondoko abestia abestea:

Saguzaharra, kontu zaharra,
eroan hagin zaharra
ekarri barria
saguzaharra baragarria.

ERROSARIOA

Ohitura izan da, iluntzetan arrosarioa errezatzea etxe guztietan. Etxeko guztiak batu eta denon artean arrosarioa errezatzea.

Orain dela 60-80 urtera arte Zeanurin aiton-amonei “amandre” eta “aite-jauna” deitzen zitzairen. Eta “berorren” eran tratatzen ziren seme eta iloben artean.

Apaiza eta medikuak tratamendu berbera hartzen zuten.

KONDAIRAK

LAMIAK

Zeanurin, beste toki askotan bezala, lamien ipuinak daude.

Berritzegunea

Lamiak gerriz gora neska ederrak ziren (Urkullu errekan, eta Lambreabeko lamien putzuan). Gaueko hamabietan agertzen ziren eta urrezko orraziekin ilea orrazten zuten. Inor agertzen bazen uretan sartzen ziren.

Esan ohi da, behin, Lanbreabeko anderea lamien putzutik pasatu zela eta erreka ertzean lamiak ikusi zituela. Lamiak uretan sartu ziren, baina orrazi bat utzi zuten ahaztuta. Andereak orrazia hartu eta etxera eraman zuten. Hurrengo gauean, lamiak anderearen etxera hurbildu ziren hau esanez:

Lanbreabeko etxanderea

emaidazu orrazia

ezpabere nik

emango deutsut arkazia.

Lamiekin bukatzeko zerbait egin behar zela eta, Zeaniztarrak entzun zuten San Juan egunean jaiotako idiekin erreka “itilatu” behar zirela. Horrela egin zen eta dirudienez lamiak hil zituzten. Gero erreketan, odol eta ileak besterik ez ziren ikusten.

ANDRA MARI ELIZAKO KONDAIRA

Zeanuriko nagusien artean elizari buruzko kondaira bat ezagutzen da: Andra Mari eliza egitekotan ibili zirenean, non egin pentsatzen ibili ziren. Zeaniztarren artean bi iritsi egon ziren: batzuk gaur egun dagoen lekuan nahi zuten eta beste batzuk San Isidron.

Azkenean, San Isidron egitea erabaki zen. Hasi ziren lanak eta eramandako materialak hurrengo egunean Eleizondon agertzen ziren. Inork ez zekien zer gertatzen zen.

Orduan, Errekaurriko etxekoek zer gertatzen zen ikusteko, gau batean zaintzen geratu ziren. Ikusi zuten orduan, aingeruEk gurdian igotzen zutela material hori Eleizondora. Zaintzen egon zeuden bitartean, aingeru batek honela esan zion Errekaurriko ugazabari: “etxe honetan ez da koixorik faltako”. Eta dirudienez, honela izan da belaunaldiz belaunaldi.



ANBOTOKO SEÑOREA

Anbotoko señoreak bi bizileku ditu: Anboto eta Gorbeia.

Sei hilabete Anbotoko haitzuloan pasatzen ditu eta beste sei Gorbeia haitzuloan.

Leku batetik besteraugarretan pasatzen da eta denboraren aldaketa egoten da.

EKONOMIA

Bertako ekonomia jarduera nagusia laborantzan (barazkiak, babak, artoa, bazkarako landareak,...), abere hazkuntzan (behi eta txerri azienda), eta baso ustiaketan oinarritua da. Dena dela, jende gehiena inguruko herrietako industrietara joaten da lanera, eta bigarren lanbide du baserriko lana.

IBILBIDE TURISTIKOA:

Andra Mari elizatik hastea gomendatzen dugu, gehien bat umeekin bagoaz, errepide nagusia ez zeharkatzeko. Ibilbidea hau da: Elizatik Arregira (800m), kultur etxetik Olabarri errotara (700m), Olabarritik Zulaibarrera (600m), Zulaibartik Axpe jauregira (100m) Guztira: 3.100m. Itzuleran ferrategia, probalekua eta udaletxea bisitatu daitezke.

ANDRA MARI ELIZA

Andra Mari eliza Iturriza historialariaren arabera, Zeanuriko eliza inguruko nekazari zentsatarioek eraiki zuten X. mendean. Ez dago baieztapen hori indartzeko inolako daturik; izan ere, tenpluari buruzko lehen agiria 1383. urtekoa da. Erdi aroko eliza haren itxurari buruz ez dakigu ezer. XVI. mendearen hasieran berreraiki zuten, jaurerriko beste asko bezala. Berreraikitze hori ez zuten oso ondo egin, XVI. Mendearen erdialdean elizaren hormak pitzatzen hasi ziren eta. 1702 urtean berreraikitze berri bati ekin zioten, eskuin aldeko sarbidean dagoen plakan irakur daitekeen bezala: "IHS MARIA, SIENDO PATRONOS DE ESTA SANTA INGLESIA DON THOMAS IGNAZIO DE BARRIOLA Y AXPE I DOÑA MARIA JOSEPHA DE ARANA, EXECUTO ESTA OBRA MARTIN DE OLAGUIBEL MAESTRO CANTERO. AÑO 1702". Berreraikitze horrek ia mende erdi iraun zuen, eta lana 1744 eta 1748 urte bitartean bukatu zuten. Orain dela gutxi zenbait berritze lan egin dira elizaren kanpo eta barrualdean lan horiek 2002ko abuztuaren 15ean amaitu ziren. Tenpluaren kanpoko bolumenak eta barrualdeko handitasunak (hiru nabe zabal) eliza monumentala dela erakusten digu eskualdeko handiena eta Bizkaiko baserri inguruko eliza barroko nabarienetakoa, alegia. Hortik ondoriozta daiteke eliza sustatu zuten eliztarrak asko zirela, eta haien hilobietarako lekua behar zutela; izan ere, garai hartan, hilobiratzeak elizaren barrualdean egiten ziren.

ELIZAKO ERRETAULA NAGUSIA

Zeanuriko S.Maria elizakoa, Bizkaiko politenarikoa dugu eta bi une edo aldi ezberdinei dagokio. Ormegala eta eserlekua 1570. urte inguruko joerakoak dira. Goiko aldea (kaleak eta atikoa) barroko estilokoak dira. Bertan, Ama Birjinaren bizitzari buruzko uneak adierazten dira. Erdian Andra Mariren oso irudi polita dugu. Irudi honetan, Jesusen jarrera naturalak, bere amari begira ari da haren aditasuna bereganatzeko asmoz, gure arreta erakarri du.

Erretaula nagusiak historia korapilatsua ezagutu du. Bazterreko pinturak XVI. mendeko lan bati dagozkio. Orduko egiturako zati bat aprobetxatuz 1570. urte inguruan beste erretaula bategatik ordezkatua izan zen. XVII. mendeko bigarren zatian pintura berriak gehitu zizkioten, eta azkenik 1710. urte inguruan elizaren berriztatzeaz oraingo egitura *barrokoa* egin zuten eta pintura berri batzuk, lehendik zeuden materialak aprobetxatuz, egin ziren. Orain dela hiru bat urte, 2002. urtean, erretaula osoa berriztatu zen.

ANTZINAKO HILOBIA:

Jakina da antzina hilobiratzeak elizen barrualdean egiten zirela. Baina XVIII. mendetik aurrera, higie eta osasun arazoak zirela eta, Errege Dekretu baten aginduz, estalitako esparru sakratuetatik eremu zabaletara atera ziren hilerriak. Ez dakigu ziur noizkoa izango den Zeanuriko lehen hilerria, baina seguru asko mende hartan eraikiko zuten. Andra Mari elizaren parean dago, eta, sartzeko, tenpluari lotutako igarobide mailakatu bat erabiltzen zen, gaur egun Iparraldeko elizan askotan ikus daitekeenaren antzekoa. Hilerriaren neurriak, logikoa denez, bat datoz hura sortu zenean Zeanurik zituen biztanle kopuruarekin.

GURUTZEAREN MENDEURRENAREN TESTIGANTZA

Gure herriaren lehen orrian dagoen gurutzea Nestor Basterretxeak egin zuen, bertatik ikusten den Gorbeiaiko Gurutzearen mendeurrena ospatzeko. Mendeurrenaren logotipoa ere egileak berak

Berritzegunea

diseinatu zuen. Egileak sekulako sintesi adierazgarri baten bidez, hain espirituala eta ludikoa den efemeride hori irudikatu zuen.

PIEADADEA ERMITA



Piedadea XVIII. mendekoa da. Antzinako galtzada, ermita- portaletik pasatzen da. Ermitako aldarearen erdian Piedadea, eskuman San Balendin eta ezkerrean Jesus Bihotzekoa daude.

FONDA

Jose Mari eta Martina XIX. mende bukaeran etorri ziren Eibartik. Apurka-apurka etxea fonda bihurtu zuten. Bertakoek “santikona” deitzen zioten. Haiiek bi seme-alaba zituzten, Juanita eta Maximo. Maximok abadetza ikasi zuen. Fonda haurrean ikusi ahal dugun irudia bere omenez jarri zuten, istripu batean hil zelako. Juanita berriz, Nikolasekin ezkondu zen, eta bost seme-alaba eduki zituzten: Pili, Irene, Jose Mari, Emilia eta Maximo.

KULTUR ETXEA

Kultur etxea lehen herriko etxea zen, gero lanbide eskola izan zen eta 1992an konpondu ondoren kultur etxea sortu zen. Kultur etxeko eraikuntza orain dela urte batzuk hainbat ekintzetarako erabiltzen zen. Gaur egun jubilatuen egoitza dagoen tokian, lehen hiltegia zegoen, eta jantokian arandegia. Harategia eta tabernatxo bat ere bazeuden. Gaur egun ekintza askotan parte hartzeko aukera daukagu bertan. Goitik behera, ludoteka, margo eta eskulanetarako gela, musika eskola gela, liburutegia eta gela handi bat ekintza desberdinetarako erabiltzen dena: hitzaldiak, batzarrak, musika, aerobic eta abar. Beste gela batzuk zeramikarako gela, botika eta posta bulegoa, eta Joko-Alai elkartearen bulegoak dira.

OLABARRIKO ERROTA

Olabarriko errota badakigu 1745.urteko sutegi – erroldan agertzen zela eta 1.000 errealeko errenta zuela. Garai horretan Zeanurin hamabost errota zeuden. (5) Errota honek hiru errotarri ditu, bat garia ehotzeko eta beste biak artorako. Energia ekoizteko errotak baliatzen ziren ur-jauzia 3-4 metrotakoa zen baina Olabbarri errotaren kasuan, 7,5 metrotakoa dugu, arinago burdinola izan zen eta. Ura eramateko, uraren maila igotzeko , Zeanuriko Plaza inguruan presa daukagu. Ibaitek ura desbideratzeko Uxeta edo ur-atea dago. Gero ura, 350 metrotako kaltzetik doa aldaparaino, hor biltzen da ura. Estoldara ura indar handiz irteten da hodietatik eta turbinak biraka hasten dira. Turbina eta goiko harria ardatz batez loturik daudenez biraka hasten da aleak ehoz.

Orain dela hirurogei bat urte jende asko, gure aitite – amamak, irina ehotzera joaten zen. Jendeak zaku txiki bat artoarekin eta zorro handi batean garia eramaten zuten astoz.

Errotariek bere lanaren truke ez dute kobratzen dirurik, baina ehotakoaren % 10a hartzen dute.

Berritzegunea

Errotaren gainean Fermin errota eta olaren maketa bat egiten ari da. Antzinako tresnak ere baditu: aizkorak, zerrak, azuelak, mailuak, e.a.

Aldaparan sobratzen den ura, ur-jauzitik Arratia ibaira doa.

Artoa, dena erabiltzen da: irina: taloak, artopilak eta morokila egiteko, artobizarra: tabako gorriaren orde ez erretzeko, hostoak: koltxoia egiteko; kanila eta garbea abereentzat janaria.



ZULAIBAR LANBIDE HEZIKETA

Zeanuriko lanbide eskola gutxi gorabehera 1955. urtean sortu zen. Lehenengotan, Zulaibargo eskola eraiki baino lehen, gaur egungo kultur etxea den eraikuntza zegoen. Zulaibargo lanbide heziketa 1966. urtean inauguratu zen eta obizpaduak sortu zuen. D. Pedro Atutxa, Zeanuriko abadea eta Undurragatarra izan zen sortzaileetariko bat.

Berritzegunea

Zulaibarren lanbide heziketa, lanbide hastapena eta batxilergoa irakasten dira. Lanbide heziketan goi-maila eta erdi-mailako mekanika, elektronika-elekttrizitatea, administraritza eta proiektuen hastapen moduluak irakasten dira. Zulaibarrera hamasei urtetik gorako ikasleak joaten dira, batxilergo teknologikoa, lanbide hastapena eta lanbide heziketa, erdi-mailako kurtsoetara sartuz.

D.B.H. amaitzen dutenak, batxiler teknologikoa edo lanbide heziketa, erdi maila, ikas dezakete. D.B.H. amaitzen ez dutenak, lanbide hastapenean mekanika ikas dezakete.



Goi-maila ikasteko batxilergoa gaindituta izatea eskatzen da. Lanbide hastapenean, mekanikako moduluak irakasten dira; lanbide heziketan: erdi-mailako mekanika eta elektronika-elekttrizitatea moduluak; goi-mailan: mekanika, elektronika-elekttrizitatea, administraritza eta proiektuen hastapena eta batxilergoan berriz, batxilergo teknologikoa. Informazioa: Imanol Cañas, Jon Intxaurren eskutik

AXPE JAUREGIA

XVIII. mende edo gizaldiko eraikina, estilo errenazentista eta herrikoia dugu. Uribera daramagun bidearen ertzean eskumaldean kokaturik aurkitzen da. Ondoan jauregiari dagokion, nahiko egoera tamalgarrian, S. Pedro basiliza dago. Arkupe batez loturiko bi alde bereizten dira. Eskumako alderdia hiru altuerako eta simetrikoki banatutako eraikin kubikoa dugu. Eraikin honen aurrealdea harlanduz egina da. Ezkerreko alderdiaren behealdea harlanduz eta lehen solairua eta ganbara adreiluz egina dago. Arkupeko zutabea harrizkoa da. Ezker alde hau erre egin zen eta bertako bizilagunek esan ziguten bertan egon egin zen Axpitarren armaria, gaur egun S. Pedro basilizan, apurtua eta abandonatua, ikus dezakegu. (5)

**FERRATEGIA**

Ferrategiak animaliei ferrak edo erradurak jartzeko tokiak dira. Behorrei, astoei, idiei, behiei,... lanean ibiltzen ziren animalien apatzak ez gastatzeko. Behorrei eta astoei lau ferra jartzen zaizkie iltzez josita; idiei eta behiei, kasu batzuetan lau, baina gehienetan zortzi. Ferratokitik animaliak jaso eta hankak ondo lotzen zaizkie, perratzaileak lan eroso egin dezan, eta abereek minik har

Berritzegunea

dezaten. Mando, asto, behi eta idiekin lan egiten zenean garrantzi handiko lanbidea zen. Gaur egun ia desagertuta dago, ferrategiak erakustaldietan bakarrik darabilte. Ferrak jartzeko lehenengo apatxa garbitu eta lisatu egin behar da, gero neurriko ferra hartu eta laukizko burudun iltzez josten da. Behorrenak eta idienak ezberdinak dira. Ferrak errementeriak egiten zizkion ferratzaileari. Orain dela urte batzuk Zeanurin bi ferrategi zeuden: bata Undurragan eta bestea Arrabalden. Gaur egun Arrabaldekoa bakarrik gelditzen da eta S. Isidroko ferian bakarrik erabiltzen da. Lehenago ohikoa izaten zen bideetan ferrak aurkitzea, lanean ari ziren abereek galduta. Beñat Mendia, Josu Mendiak esanda.

ZEANURIKO PROBALEKUA



Badirudi 1929. urtean, harri zapalaz osoturik, egin zela. Eta gaur egun ezagutzen duguna 1953 urte inguruan hasi ziren lanak egiten eta 1955. urtean inauguratu zen. (7) Karmele Olano
Karrejoaren neurriak hauek dira: Luzera: 28m eta zabalera: 5m.
Guztira luzera: 36metro eta guztira zabalera: 7m (Juan Marik neurtuta)
Karrejoa luzetara 4 zatitan banatuta dago. Luzera bakoitza untze bat bezala kontatzen da. Luzera bat pasatuz gero laurdena eta metrotan kontatzen da.

Karrejuaren alboan dauden marrak pasatuz gero; “ustela” deitzen da, hau eginez gero irten zaren toki berdinerara bueltatu behar da jarraitzeko. Probalekua harriz jantzita dago, harriak batzuetan errekoak edo borobiltxoak izaten dira. Zeanuriko kasuan lauki zuzenak dira. Probalekuan egiten diren frogak, idi-demak izaten dira, hau da, idi bikote bat harriarekin probalekuan luzerak egiten. Idi-demak batzuetan pisu librekoak eta beste batzuetan pisu kontrolatuak edo behi-zamak izaten dira.

ZEANURIKO UDALETXEA



Errepide eta herriko plaza artean kokaturik aurkitzen da. Sarrera errepidetik eta aurrealdea, harri landuz egina, plaza aldera du. Oinarri laukizuzena, teilatua lau uretara, beste hormak errekarritz egindakoak baina ertzak harri landuz. XIX. mendean (1852. urtean) eraikitzen hasi ziren, Pedro Luis Bengoetxea arkitektoaren agindupean.

PLAZA

Plaza zabala dauka Zeanuri udalerririk lehengo Bilbo–Gasteiz errepidearen ondoan. Bertan altxatzen diren eraikinik esanguratsuenak: batzokia, baserri bat berraprobetxatuz; udaletxea; lerroz lerro jarritako etxeak, frontoia, proba-lerkua eta herri iturria. Neoklasiko, barroko eta gaur eguneko

Berritzegunea

estiloak batzen dira bertan. Frontoia 1925ean eraikitzen hasi ziran, Aldundi txit gorenak dirulaguntzak ematen zizkion obra motek jarraitzen zituen eskemei jarraituz eta 1929 inauguratu zen. Emaldi etxearen ondoan proba-lekua dago, kale zabala eta galtzarrezko zoladura daukana. Plazaren bazter batean dagoen iturriak txorro automatiko bi dauzka. Iturria bera harlanduzkoa da, zutabe karratuaren itxura dauka, tronko piramidal itxurako bigarren tarte bat duela. Lautadatxo baten gainean dago, behea baino zertxobait gorago, maila bi igaro behar dira hara heltzeko . Lehen plazaren beste aldean zegoen.

BIBLIOGRAFIA

Udaletxeko informazioa
Lur Entziklopedia
Iaz Gorbeialderi buruz egindako lana
Arratiako Udalen mankomunitatea
Bizkaiko herrien monografía (Salomé Ibarrondo)
Lekuko informazio idatzia
Karmele Olano

EGILEAK

Lanaren zuzentzaile eta koordinatzaileak: Maider Artetxe eta Juan Mari Arrizabalaga
Altuna Zuazua, Irati
Atutxa Zamkova, Iban
Beitia Emaldi, Itsaso
Bengoetxea Ugarte, Unai
Cañas Zuluaga, Imanol
Gutierrez Mendez, Alvaro
Izurza Olibares, Mikel
Lasa Manterola, Paule
López de San José, Eneko
Mendia LInaza, Beñat
Nogales Ventas , Imanol
Nogales Ventas, Mikel
Sanautanu, Ander
Vasquez Rodríguez, Piero
Villaverde Baliñas, Ander

ZEBERIO



Etxazo auzoa

KOKAPENA

Zeberio Bizkaiko udalerrria da eta Arratia - Nerbioi eskualdean kokatuta dago. Bere hedadura 47,2 km² da, Bizkaiko udalerririk luzeena. Bailara batean sartuta dago, Bilbotik 22 kilometrora.

Zeberio ez dauka herri baten egitura, auzoz osatuta dago, honako hauek direlarik:

Aresandiaga, Saldarian, Elorrebieta, Arbildu, Uriondo, Santa Kurtze, Bertzuten, Arkulanda, Olatzar, Areiltza, Zabala, Sautuola, Sautuola Barri, Solatxi, Zubialde, Zubibarra, Barbatxao, Ereñotza, Zeberiothane, Ibarra, Ermitabarri, Gesala, Etxazo-Gorositu, Barañao-Orbetzu, Isasi, Ibarondo-Argiñao, Undarraga.

Auzunerik gehienak iparraldeko hegalean bitarteko eremuan kokaturik dagoz eta arrazoa begi-bistakoa da, iparraldeko mendi hegala hegoaldekoa baino eguzkitsua delako.

MUGAK

Zeberio parez pare dauden mendien erdian dago eta auzuneak oso sakabanatuta daude oso lautada gutxi dagoelako.

Zeberio mugak hauek dira:

Iparraldean: Ugao, Arrigorriaga, Zaratamo, Galdakao, Bedia eta Igorre.

Hegoaldean: Orozko.

Sortaldean: Arantzazu eta Artea.

Sartaldean: Ugao eta Arrigorriaga.



BIZTANLERIA

2005ean Zeberion 1.050 pertsona inguru bizi ziren. Pertsona gehien bizi den lekua Sautuolabari da eta gutxien Lezartza. Zeberion ia ez dago pisurik, gehienak baserrietan edo etxe bakarretan bizi dira. Biztanleria sakabanatuta bizi da. Ingurunean barreatutako landa gunetan.

ZEBERIOKO LANDAREDIA

Landarediak eragin edo zerikusia dauka zeberioztarren bizimoduan, gure bizitzarako gauza asko ematen dizkigu eta. Adibidez: eguneroko janaria (barazkiak, zerealak, fruituak, infusioak, azukrea...), zenbait lanbiderako materiala (zuhaitzak, egurra, papera...), sendabelarrak, landare aromatikoak (kamamila, erromeroa...), animalientzako janaria (belarra, erremolatxa...), berotzeko egurra, arnasa hartzeko oxigenoa.



Mitologian erabiltzen direnak : eguzkilorea... (uzta onak hartzeko, etxeetatik sorginak uxatzeko). Honez gain, landarediak zerikusia dauka Zeberio baserrien izenekin. Adibidez:

AUZOA

Ereñotza

Untzeta

Elorrebieta eta Elorriaga.....

LANDAREA

ereñotza edo erramue

untza

elorria

Lezartza	lizarra
Aresandiaga	haritza
Urza	urritxa

ZEBERIOKO ANIMALIAK

Animaliek, landareak legez, zerikusia dute Zeberio baserrien bizimoduan. Hainbat animaliak laguntza handia eskaintzen dute baserrietako lanetan. Adibidez: astoa belarra eta egurra eramateko, idiak (gaur egun ia ez daude) gurdia garraiatzeko, etab.

Honez gain, janari asko ematen dizkigute: Haragia, esnea, arrautzak eta ezta aberastasun iturri bihurtuz. Baita, animaliak Zeberio auzo - jaietan erabiltzen dira (gaur egun gero eta gutxiago): Idi probak, zaldi probak, ardi eta txakur lehiaketak, ...

Azkenik, ehizarako jendearen dibertsio hutsez ere, erabiltzen dira: oilgorra, basurdea, oreinak...

Bertako animalien sailkapena :

Basabereak: Orkatza, oreina, basurdea, azkonarra.

Etxabereak: Behia, txerria, oiloa, katua, untxia, astoa, zaldia.

Uretakoak: Zapaburua, karramarroa, kiskailua, arrankaria.

Hegaztiak: Lertxuna, oilagorra, usoa, txantxangorria, belea, zozoa, mozoloa, txepetxa.

Narrastiak: Sugandila, sugea...

Zeberio etxabereak



ERREKAK

Euskal Herriko errekek bi isurialde dituzte Kantauri itsasoa eta Mediterraneo itsasoa. Zeberio erreka Sarasolaganen jaiotzen da eta Kantauri itsasoan isurtzen da. 9 kilometroko luzera du eta bai ezkerretik, bai eskumatik hainbat errekatxo batzen zaizkionez, arrain baten eskeletoa dirudi.

Meako erreka Semelarre mendi azpian jaiotzen da eta Areiltzan, Zeberio errekaekin elkartzen da. Bertzuten erreka Olatzun elkartzen da Zeberio errekaekin. Olazar auzunean Barren erreka izenarekin ezagutzen da.

Gesala erreka Artean jaiotzen da.

Egia erreka Arrugaetakoatxan jaiotzen da eta Zubialden elkartzen da Zeberio errekaekin.

Larrako erreka Untzetapikun jaiotzen da eta Arbildun Zeberio errekaekin elkartzen da.

Udiarra erreka Otzagaraien jaiotzen da eta Zeberio errekaekin Elorbietan elkartzen da.

Ibarrondo erreka Argiñakoatxan jaiotzen da eta Zeberio errekaekin Letokin elkartzen da.

Gorozitu erreka Ermitabarrin Zeberio errekaekin elkartzen da.

Solatxi erreka 2 kilometrotakoa da eta Zeberio errekaekin Zubialden elkartzen da.

Ostola erreka Zeberio errekaekin Areiltzan elkartzen da.

Altzagako erreka Makatza landa azpian jaiotzen da eta Zeberio errekaekin Arbildun elkartzen da.

Elorbietan erreka Artanda mendiaren hegalean jaiotzen da eta Zeberio errekaekin Elorbietan elkartzen da.

ITURRIAK



Zeberion hainbat motatako iturri daude. Iturri hauek egotearen arrazoiak bi dira: zoruaren konstituzioa, eta urte osoan zehar euria egiten duela eta hezetasuna dagoela. Iturri motak hurrengoak dira:

ITURRI SULFUROSOAK:

Murga mendiaren magalean daude, Ermitabarri auzoan.

XIX. mendean gaixotasunak sendatzeko erabiltzen ziren urak. Ezagunenak hiru dira: Urgazie, Gesala auzoan. Antzina bere urak erabiltzeko bainuetxe bat eraiki zen. Ureatsa, Gesala eta Ermitabarri artean kokatuta. Uratsa, Ugarte auzoan kokatua.

ITURRI BURDINTSUAK

Zubibarri eta Arbildu artean egoten dira. Bere urak etxeetan edateko erabiltzen dira. Eta Zeberion ezaguna den “pittikin” edaria egiteko. Ezagunenak Zubibarria auzoko Iturriondo, Sautuolako Zabale, Ariltzako basoko, Arkulandako bekolanda eta Santa Kurtzekoak dira.

MENDIAK

Zeberio harana inguratzen dituzten mendiak 500 eta 700 metro tartekoak dira.

Mendi altuenak mugak markatzen dituzte.

Zeberion zortzi mendi daude eta hauek dira:



Untzeta (765m), Axpuru (661m), Arrugaeta (669m) Semelarra (641 m), Mandoia (634 m), Upo (574 m) Otzagarai (331 m), Artzanda (547 m) Mandoiaren mugakidea Bedia da eta Uporena Zaratamo. Urtero Upon festa bat ospatzen da, urte batzuetan Zaratamoko udalak antolatuta eta beste batzuetan Zeberio udalak.

Untzeta eta Arrugaeta Orozkoren mugakideak dira.

KLIMA

Leku batean urtean zehar egiten duen eguraldi motari klima deitzen zaio. Eguraldia ikertzen dutenak meteorologoak dira. Eguraldia, urte osoan aldatuz doa eta honela urtaro bakoitzean desberdina da. Zeberio mendi artean kokatuta dago. Bere inguruan baso asko daude. Baso horiek baso Atlantiarra dira. Horregatik, klima ere Atlantiarra da: negu epela eta euritsuak, eta udak ez oso beroak, hau da, tenperatura aldaketak ez dira hain bortitzak. Horregatik landare estalkia oso oparoa da.

EKONOMIA

Pertsona guztiek ez dute lan berdina egiten. Zeberio biztanleen lanak, lehenengo, bigarren eta hirugarren lan sektoreetan banatuta daude :

Lehenengo lan sektorean, naturatik produktuak ateratzen dituzte, baina gutxi batzuk bakarrik daude:

- mendiko zuhaitzak moztu

- nekazariak (gehienak etxerako dira.)
- artzainak

Bigarren lan sektorean, naturatik ateratako produktuak eraldatzen dituztenak. Zeberion, egurraren inguruan sortu da industria. Hiru zerratoki daude.

Hirugarren lan sektorean, zerbitzuak eskaintzen lan egiten dutenak:

Dendaria, tabernaria, banketxe, medikua, musika eskola, eskola, udaletxea, farmazia, postaria, egoitza eta haur eskola.



Zerrategia

OHITURAK

Zeberion betidanik ohitura asko egon dira. Hauek urte osoan zehar ematen dira, batzuk gabonetan eta besteak urteko beste garai batzuetan. Antzinatik mantentzen dira ohitura hauek eta herritarren partehartzearekin batzuk ez dira galdu.

Hona hemen ohitura batzuen azalpena.

Kandelario eguna: Otsailaren 2an ospatzen da. Kandelak bedeinkatu ostean gorde egiten ziren, ekaitza zegoenean piztu eta otoitz egiten zen. Kanta hau abesten zen.

Kandelario lario

Hatzetik ure dario

Erroteari urune

Hori da guk behar dogune.

Sta Ageda: Otsailaren 5ean izaten da, baina bezperan abesten da. Sta Ageda etxerik etxe abestuz, baserritarrez jantzita ospatzen da. Umeak goizean eta nagusiak eta gazteak iluntzean joaten dira. Abestia ondorengoa da:

Sta Ageda bezpera dogu

Euskal Herriko eguna

Etxe guztiak kantuz

Pozteko aukeratua doguna...



Txintxiburruntxi edo kanporamartxo:

Inauterietako astea baino bi igande lehenago ospatzen da. Egun honetan jendea basora joaten da bertan sua egin ondoren burrunzian erretako txorizoa, urdaia... jateko.

Ihauteriak: Mozorrotu egiten da eta tostadak jaten dira.

Morrokoteak (mokotsak): Pazko igandean aitabitxi – amabitxiak besoetako umei ogia bi edo hiru arrautzekin oparitzen die.

S. Juan Bagilea: Ekainaren (bagila) 24an ospatzen da. Bezperan, ilunabarrean auzoan sua egiten da eta galtzu piloari sua emanda, eskuan hartuta, bakoitza bere soroetatik abestuz joaten da, uzta zaintzeko eta babesteko. Gero txokolatea hartu ondoren, gazteak suaren indarra jaisten denean salto egiten dute suaren gainetik. Abestia hau da:

*S.Juan bagilea
denpora eder-ederrean
zapoak eta sugeak erre
gariak eta artoak gorde.*

Perretxiko erakusketa: Azaroaren 1ean herriko enparantzan egiten da. Aurreko astean eskolako umeek egun bat aukeratzen dute perretxikoen bila joateko.

BASERRIKO OHITURAK

Txakolina: Herriko baserri batzuetan urtero txakolina egiten da: Lehenengo mahatsa batu behar da, eta ustelak baztertu. Balde handi batera bota eta zapaldu. Mahatsa prentsara bota eta prentsak irazki egiten du. Barrika batera bota eta gutxienez 28 egun egon behar da fermentazioa egiteko. Gero, beste barrika batera sartzen da eta hiru hile pasatu ondoren, garrafetan sartzen da edo botiletara pasatzen da.

PRENTSAREN ERABILERA:

Prentsaren lana mahatsari zikinkeriak kentzea da, eta honela egiten du: Mahatsa zaku batean sartzen da. Zakuari ura irten behar zaio. Ez du balio plastikozko zaku batek. Gero, zakua prentsara sartzen da eta prentsak zuloak dituzenez, txakolina handik irteten da zikinkeriarik gabe.

GABONETAKO OHITURAK

Olentzero: Abenduaren 24 gauean, Olentzerok “onak” izan direnei opariak ekartzen dizkie, eta “okerrei” ikatza. Gau horretako afarian, ogia hartzen zen eta ogi gainean labanarekin gurutze bat egiten zen, gero musua eman eta ogi kuskurra mantel azpian sartzen zen. Afaldu ostean kuskurra armailu gainean gordetzen zen, hurrengo urtera arte edo txakur amorratu bat agertu arte. Txakur amorratuari ogia eman eta ez zuela zaunkarik egiten esaten zen.

Inuzente eguna: Abenduaren 28an ospatzen da, egun honetan inozentadak egiten dira. Inozentadak txantxak egitea da.

Urte berri eguna: Urtarrilaren 1ean, etxerik etxe abesten da (galtzear dago) gabonsaria eskatzeko: gozokiak, gailetak edo turroi zatiak.

*Urte barri
Txarri belarri.*

*Daukonak ez daukonari
Nik ez dekot eta niri.*

Erregeen eguna: Urtarrilaren 6an, umeak berriro ere etxeetara joaten ziren abesten :

*Apalazio zaldune
Hiru erregeen egune
Hiru erregek bilatu zuten
Limosnatxue eskurre
Digule eta diguzu
Martin emon gurebozu
Martinek hori eraman dotze
Hiru oilanda katue
Haren azurrek batu ezinik
Guk darabigu saltue*

*Saltu eta brinko
Saltu eta brinko
Jose Marian aurrean
Gabon gabeko
Intxaur saltzea*

KONDAIRAK

Euskal Herrian, beste herri batzuetan legez, kondaira oso interesgarriak aurkitu ditzakegu. Kondairak duela urte asko gertatutako istorioak dira eta fantasiaz beteriko zerbaiten berri ematen digute.

Euskaldunak sineskera handikoak izan dira eta Juan Manuel Etxebarria, Zeberioztarrak, hurrengo hau idatzi du “Euskal Sineskera” liburuan:

“Bazen behin, Zeberioko neska gazte eta polit bat Bilbo zaharreko jaialdi batera joan zan. Ondo pasatzen ebilen eta etxera joateko ordua pasatu jakon. Bere gurasoak gogor egin eutsien abemariako kanpaiak jota gero etortzeagatik etxera eta oraindik iturria joan behar ebalako. Ura derrigorrez ekarri behar zan, eta jarroa hartu eta txapa-txapa iturrirantz abiatu zan. Iturria errekaen beste aldean egoan eta zubia oraindino urrun. Halako batean hasi zan esaten berbaltuan.

Inpernuko deabruek ez deuste egingo hementxe artxubi bat joan-etorria arinago egiteko?

Berehala agertu jakon deabrua kaballero bat legez praka gorriekin eta zaldi baten gainean, esan eutson :

Zubia gure badozu, egingo jatzu, baina horretarako zeure arimea emon behar deustazu! Neskak baietz esan eutson eta bere laguntzaileak, prakagorriak zubia eraikitzen jota ke hasi ziren.

Neska damututa abadeari kontatzera joan zan eta honek arimea salbatzeko martian jaiotako oilar bat aurkitu behar ebala eta zubia amaitu orduko “kukurruku” egiten baeban salbatuko zala esan eutson. Izan ere holan izan zan. Prakagorri guztiek oilarra entzutean alde egin behar izan eben eta artzubia harri baten falta geratu zan. Deabrua sutan geratu zan eta amorruaren amorruez indar guztiaz jo eban azkenengo harria eta bost atzamar markaturik utzi ei eutsazan eta esaten dabenez, gaur egun ere han ei dagoz atzamar markok.”

JAIK

Zeberioko, eskumako aldea ermitaz josita daukagu. Gehien bat leku isolatuetan, landa baten erdian. Baselizek ia denek eguzkia irteten den lekuari lepoa ematen diote. Zeberioko ermitak oso eraikin xumeak eta apalak dira. Santuen egunean oraindik ere mezak eta jaiak ospatzen dira. Zeberion eliza guztiek beren jaiak dituzte.

Ermitabarriko San Antonio: Ekainaren 13an ospatzen da. Pobreen, berba egiteko zailtasuna daukaten umeen eta mirakuluen santua da.

Undurragako San Justo eta Pastor: Abuztuaren 6a da haien eguna, baina Zeberion uztailearen 31an, San Inazio egunez, burutzen dira urtero.

Argiñaoko San Adrian: Argiñaoko auzotik Mandoia mendirako bidean dago baseliza hau. Abuztuko lehen igandean ospatzen da jaiak.

Barañaoko San Anton(io): Barañaoko eta Orbetzu auzoen artean kokatuta dago. Jaiak urtarrilaren 17an ospatzen da. Meza ostean akerra, oiloa eta untxia zozkatzen dira eta ardo zuria, txorizoa eta intxaurrek etxeko ogiaz jaten dira.

Baratzargo San Martin: Azaroaren 11an ospatzen dira jaiak. Baseliza hau gaur egun desagertuta dago.

Etxasoko San Esteban: Jaiak abenduaren 26an ospatzen dira. San Esteban 1550.urtekoa da.

Aldañoako San Martin: 397.urtean hil zen santu hau. Zeberiogana auzotik Mandoiara goazela Ametzolagoitiko baserritik km batera kokatuta zegoen eliza, gaur egun erorita dago.



Zeberioganeke ermita

Zeberioganeke Andra Mari: Abuztuaren 15ean ospatzen dira jaiak. Ermitak aldamenen abadetxea deitutako etxea dauka. Olabarrietako Santo Tomasen elkargoak eraikitako etxea izan zen.

Barbatxaoko Santo Tomas Zaharra: Barbatxao eta Ereñotza auzoen artean kokatuta dago. Lezurriaga deitutako basoan dago. Abenduaren 27an ospatzen da.

Zubialdeko San Antolin eta San Roke: Irailaren 2an eta abuztuaren 16an ospatzen dira jaiak. San Roke gaur egun ez da ospatzen.

Urizargo San Bartolome: Solatxi eta Artiñano auzoetan ospatzen den jaia da. Abuztuaren 24an egiten da.

Santa Krutze: Maiatzaren 3an ospatzen da. Bertan elorriaren bedeinkapena burutzen da, erramu bedeinkatuak baserriaren atarian eta soroetan jartzen dira, ekaitz, tximista, gaixo eta kalteen aurka babesteko.

Upoko San Segismundo: Upo deitutako mendian dago kokatuta eta Zeberio eta Zaratamo herriek erdibana duten ermita da. Uztailaren bigarren domekan ospatzen da.

Uriondoko Asentzio: Jai honek ez dauka egun zehatz bat, Aste Santuak agintzen du. Orain arte ostegunez ospatu izan da, baina orain igandez ospatzen da. Pasko igandetik, igande hori kontatu gabe, seigarren igandean ospatzen da.

Saldariango San Blas eta San Pedro: Otsailaren 3an San Blas ospatzen da. San Pedoren meza ekainaren 29an burutzen zen. Gaur egun ez da ospatzen San Pedro jaia.

KOMUNIKABIDEAK

Zeberioak auzune asko ditu eta oso sakabanatuak daudenez, oso zaila da baserri guztiak ondo komunikatuta egotea. Horregatik, Zeberion kotxea edukitzea beharrezkoa da. Zeberio, Artea eta Ugao artean dago eta bi herri hauen arteko errepideak zeharkatzen du herria. Zeberiotik Bilboraino autobus bat dago bi ordurik behin eta egunean birritan autobus hori Artearaino doa. Nahiz eta Zeberio trenik ez eduki, Ugaoraino kotxez joanez gero, trena har daiteke, bai Bilbora, bai Arabako hainbat herritara.

HISTORIA

Zeberioako bizilagunak patroik eta infantzoiak zeuden banatuta. Patroiak Ugao-Miraballeseko hiritarrak ziren, baina Zeberioako Ibarrean bizi ziren. Hirikoak zirenez, Gaztelako legearen arabera epaitzen zituzten eta euren ordezkaria eta epaile nagusi Ugao-Miraballeseko alkatea zen. Gernikako batzarretan Ugao-Miraballese bitartez zeuden ordezkariak eta barruko arazoetarako patroik erregidore bat zeukaten.



Olabarrietako Santo Tomas eliza

Infantzoiak, berriz, Olabarrietako Sto. Tomas elizatean errolatuta zeuden bizilagunak ziren. Beraien erregidore fidela eta batzar nagusietako ordezkaria zuten. Talde biak bakoitzak bere aldetik eratzen zituen udal batzarrak, baina gai komunean Udal Orokorrak antolatzen ziren.

Zeberio batzar edegiak 1743. urtera arte egin ziren, Zubialdeko udaletxea eraiki arte.

Orduan ez zegoela denentzat lekurik eta gehienek ahots eta botoa eskuordetu behar izan zuten.

Zeberio talde bitan banatuta egotea 1873. urtean amaitu zen korregidoreak aginduta eta erregidore fidel bakarra aukeratzeko agindua eman zuen.

Gaur egun, oraindik ere, badago Olabarrietako Sto. Tomaseko patronatua. Baina 1815. urtetik lur, etxe eta eraikinen administrazioa da bere zeregin bakarra.

IBILBIDEA



Aresandiaga, Ugaoko zubia pasatuta, Zeberioako lehen auzunea da. Hemen errota bat ikusiko dugu, Zeberiorantz errepidea jarraituz 300 metrotara dago, ezkerrean dagoen laugarren eraikuntza da.

Errota berriztatzen ari dira antzinako egitura mantenduz. Baserri forma dauka, adreiluz, egurrez eta harriz eginda dago, teilatua ur bitera dauka.

Ibilbidea egitean errotaren funtzionamendua ezagutuko dugu.
Errepidea jarraituz, *Artzubin* geldituko gara antzinako zubia ikusten.



Artzubiko zubia izenak dion legez Zeberioko Artzubi auzunean aurkitzen da. Ugao – Zeberio errepidea jarraituz, ezkerretara Zabaleko bidea (Maderas Larrakoetxea) hartzen den tokian ikus dezakegu.

Artzubiko zubia Aresandiagatik errepidea jarraituz bost kilometrotara dago.

Zubi hau erromatarra da, Zeberioko beste batzuk bezala. Gehienak, zoritzarrez, denborarekin desagertu egin dira galtzada erromatarrekin batera.

Artzubiko zubia harrizkoa da, begi batekoa, baina gaur egun ez da erabiltzen erdi erorita dagoelako.

Aurrera jarraituz gero Zubialden autobusa utzita *Barbatxaora* oinez abiatuko gara.

Zubialde ondoko errepidea gurutzatu behar da, ezkererantz seinalatuta dagoen tokitik, eta hara heltzeko aldapa bat igo behar da.

Auzune honen ingurua zuhaitzez betea dago: pinuak, haritzak, gaztainondoak eta batez ere eukaliptoak. Inguruan zazpi etxe ere badaude eta horietako sei baserriak dira. Baserri batzuk, hutsik aurkitzen dira eta konpondu gabe daude. Eraikuntzak harrizkoak dira, teilatu batzuk urbikoak dira eta besteak lau uretakoak. Etxeak multzoan daude.

Barbatxao atzean utzi eta errepidean gora jarraituz *Ereinetza* auzora helduko gara. Bide ondoan intxaurren bat dago, eta honen inguruan sei baserri. Hauetatik bik harrizko balkoiak dituzte. Baserrien artean ez dago distantzia handirik.

Auzune honetan ikusgarriena Aldeko baserria da dorretxe itxura daukalako. XVI. mendean horrelako eraikinak zabaldu ziren, baina dorretxeetatik bereizten ziren gorantz gutxi garatu zirelako eta baita leiho asko zituztelako. Baserri honen teilatua lau uretako da.

Ereinetzatik erdiko bidea jarraituz, *Zeberioanara* helduko gara.

Zeberioanaran iturri txiki bat dago eta iturriko aldapa txikia igo ezkerreko Andra Mariko ermitara helduko gara.

Ermita hau oso ospetsua eta aberatsa izan da, horregatik 1973-ko martxoan bertako Ama Birjinaren irudia ostu zuten.

Ermitaren planta lauki zuzena da eta elizpeak ermita guztia inguratzen du. Bertan egurrezko mahai eta aulki luze batzuk aurkitzen dira. Ermitak, aldamenean, abadetxea deitutako etxea ere badauka, Olabarrietako Sto Tomas Elkargoak eraikitakoa. Etxe hau gaur egun aterpetxe legez erabiltzen da. Aurreko zelaigunean txoko txiki bat ere badago. Berrito iturrira itzuliz errepidera helduko gara eta eskumatara hartuko dugu



Ermitabarrira jaisteko.

Ermitabarri auzoan S. Antonio basiliza, bolatokia, zaharren egoitza, uratsa iturria, Olabarrietako Sto. Tomas eliza eta honen ondoan hilerria aurki ditzakegu.

Inguruko paisaia begiratu ezkerreko, pinu eta haritz handiak, lizar batzuk, landa zabalak eta belartsuak daude.

Gesaleko bidetik joan ezkerreko, konpontzen dabiltzan frontoiarekin topo egingo dugu.

Bidea jarraituz uratsa iturriko kartela ikusiko dugu.

Olabarrietako Santo Tomaseko harrizadura

Iturri honen urak usain eta zapore berezia dauka sulfurosoa (uratsa) delako baina osasunerako oso ona da. Bertako ura Gesala errekarra isurtzen da. Lehengo bidea hartuz, eta elizara igo aurretik, ezkerraldean zaharren egoitza aurkituko dugu.

Eraikuntza hau berria da eta ingurua nagusientzat oso ondo egokituta dago. Ibilbidea jarraituz, Olabarrietako Sto. Tomas eliza ezagutuko dugu, hau oso handia da eta *Elizondon* dago. Bere elizatepean Nerbioi ibaiko harri txokorrez egindako harrizdura daukagu. Erabilitako harriak bi motatakoak dira: gris - beltzak eta irudiak markatzeko adreilu gorrizka dute. Guztira 30 irudi desberdintzen dira harrizadura berezi honetan. Aipatzearren batzuk: olatua, lislorea, bihotz bikoitza, labirintoa...eta abar.

Martin Goroztiza maisu harriztatzaile zeberioztarrak 1628an eraikia. Elizatepeak bira osoa ematen dio elizari kanpoaldetik, pasealeku oso polita da. Elizak kanpandorre handi bat du eta leiho batzuk ditu. Elizaren atzealdean landa handiak eta belartsuak daude. Autobusa hartzeko errepidera joango gara eta ondoan dagoen bolatokia ikusiko dugu. Bolatokia S. Antonio jaietan erabiltzen da.

Ermitabarri ikusi eta gero, autobusez *Zubialdera* joango gara. Auzo honetan, erdigunea denez, Zeberioiko plaza eta zerbitzu garrantzitsuenak daude: eskola, udaletxea, farmazia... Eskola txikia geratu zaigunez, lehen hezkuntzako 3. 4. 5. eta 6.mailakoek udaletxeko gela batzuk erabiltzen ditugu, honegatik eskola eta udaletxea ezagutuko ditugu.

HIZTEGIA

ERALDATU: Zerbaitek bere itxura aldatu

MUGA: Elkarren jarraian diren bi lurralde desberdin banatzen dituen marra edo gunea. (Euskal herriko zazpi probintzia zorritzarez mugez zatiturik ditugu.

BARRAIATU: Tolestu zein bildurik dagoen zerbaitek toki edo hedadura handiagoa hartu.

LANDAGUNEA: Lantzeko ona den lur eremua.

METEOROLOGOAK: Meteorologian aditua edota horretan diharduen pertsona.

KLIMA: Epe luzean leku jakin bateko atmosferak izan duen batez besteko egoera eta garapenaren ezaugarri diren fenomeno meteorologikoen multzoa.

DEABRUA: Infernuko gizona.

PRAKAGORRIAK: Deabruaren laguntzaileak

IHAUTERIAK: Hausterre aurreko egunetan egin ohi diren garizuma aurreko jaiak.

HAUSTERRE: Garizuma hasten den eguna.

FLORA: Eskualde edo habitat batean hazten diren landare-espezieen multzoa.

FAUNA: Toki bateko animalien multzoa.

ERROLDATU: Entitate administratibo jakin bateko biztanleen zerrenda.

ERREJIDORE: Zinegotzia, euskal probintzietan urtebete irauten zuena.

INFAZOIAK: Erdi Aroan, zenbait pribilegio ekonomikoren jabe zena.

PATROIAK: Nagusia, ugazaba.

BIBLIOGRAFIA

EUSKAL SINESKERAK (I) : Prakagorriak Juan Manuel Etxebarriarena

Internet: <http://www.zeberio.net>

Zeberioiko udalaren informazioa

Etxeko eta auzokoen informazioa.

Liburuak: Zeberio landaredia eta animaliak

Kepa Perez Urrazarena

Ingurunekeo liburu desberdinak: Anaya, Elka, Edebé...

ZEBERIO: Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao. Alzola Caviades (1994)

ERMITAS DE BIZKAIA: Bizkaiko Foru Aldundia – Labayru Institutua. Bilbao. 3. alea.

EGILEAK

ZEBERIO ZUBIALDE L.H.I (2. eta 3. zikloak)2005-2006 IKASTURTEA

AGIRREZABALA ARROITIA GARAZI

AGIRREZABALA GOTI JOSU

AGIRREZABALA GOTI XABIER

ALBIZU LASA MIRARI

BERNAOLA ALBERDI AMAIA

BRIZUELA CLINCH ANDONI

BUSTINZA ORUE JON

BUSTINZA ORUE XABIER

DIEZ MAURIÑO KEILA

DIOS MARTIN GOIZANE

GIL ANGULO MIKEL

GOIKOETXEA OVEJERO KARMELE

GONZALEZ FEDRIANI AITOR

GONZALEZ FEDRIANI NAHIARA

GOTI LANDAJO JOSEBA

IDIRIN EGAÑA IRATÍ

IPÍÑA APARICIO OLATZ

IRIONDO PETRALANDA ENEKO

IRIONDO PETRALANDA URTZI

JUL ALAIZ ASIER

ENPRESAREN

MUNDUA

ARRATIAN

SARRERA

Zulaibar Lanbide Ikastegiko teknologi batxilergoko 2. mailako ikasleak gara eta lan luze eta zabal baten aurrean jarri garela uste dugu, egia esateko, horrek kezkatu egiten gaitu zertxobait baina lan honek duen asmo xumea betetzea espero dugu benetan. Hemen ikusten ditugun puntuek, segur aski, sakontasun eta zehaztasun handiagoa merezi dute baina lehen urratsak ematen ahalegindu garela, ziur egon. Datorren urtekoek denbora gehiagorekin eta astiroago jarrai dezakete guk hasitakoa. Gogora dezagun honi buruz euskal esaera zahar batek dioena: “Lan baratza, lan aratza”. Nonbaitetik hasi behar eta, lehenengo eta behin azpitaldeetan banandu ginen, klase denboran lana errazteko asmoz:

HELBURUAK

Lan honen helburuak honako hauek dira, besteak beste:

- 1.- Arratiako, hau da, gure inguruan dauden enpresak hobeto ezagutzea.
- 2.- Arratiako enpresa hauek ingurumen arauak betetzen dituzten eta hobetzeko neurriak ere hartzen dituzten ala ez jakitea.
- 3.- Arratian baliabide naturalak eta ingurumena zaintzeko, biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko eta garapen iraunkorraren garrantziaz kontzientzia handiagoa hartzeko zer egiten den ikertzea.



JARDUERA EKONOMIKOAK ETA ENPRESAK HERRIZ -HERRI

Gorbeialdeko inguruetan lantegi ugari ikus dezakegu, hiru sektoretan banatuta gehien bat:

- 1.- Lehenengo sektorea: abelazkuntza, nekazaritza (baserriak), basogintza, harrobiak,...
 - 2.- Bigarren sektorea: industria, burdingintza, metalurgia, egurgintza, altzairuak,...
 - 3.- Hirugarren sektorea: garraiogintza, merkataritza, zerbitzuak, irakaskuntza, aseguruak, banketxeak, supermerkatuak, jatetxeak, tabernak, hotelak,...
- Herri bakoitzeko jarduerak ikusita, toki bakoitzean enpresa desberdinak ikus ditzakegu:

LEMOAN: Construcciones Amuriza, Panadería Lemona, Cementos Lemona, Iberinox 88, Larón, Muebles el Almacén de Lemona, Carrocerías El Gallo, Opel Ibaigane, Aretxa Alzariak, Talleres Buga, Marmolería Lemona, Vasgramar, Riki Kirolak, Bizkai Motor Racing, Carpintería La Cruz,...

ZEANURIN: Zulaibar L.I., BBK, Undurragako Presa Elektrikoa, Hostal Barazar, Gasolindegia,...

IGORREN: BATZ, Bridgestone, Renault, Ormazabal, Tecnichapa, Negarra, CIE Automotive, GEA Ibérica, Hierros Sancho, Ebay, Fuñetal, Maderas Iruarrizaga,



Ilumbe, Fiat Motor, BBK, Lagun Aro, La Caixa, BBVA, Baserritaren Kutxa, Argazkari, Hotel Arantza, Cava Cooperativa, Aliprox, DIA, Gasolindegia, Pedro Mari Autobusak, Okre, Institutua, Garantze Autoeskola, Arratia Autoeskola,...

DIMAN: Aramotz Sagardotegia, Serrería Sutek, Egoitza, Okindegia, BBK, Axpe Goikoa, Construcciones Lezatxu,...

ARANTZAZUN: Talleres Zelai, Montero, Comecaran,...

ZEBERION: Maderas Astondoa, Maderas Larrakoetxea, Maderas Orue, Contrucciones Idirin S.A., Egoitza, Taberna Araluze,...

BEDIAN: Incoesa, Urizar Motor, Matricerías Arratia, Euskal Piel, Alfus,...

AREATZAN: Pirotecnia Astondoa, Contrucciones Tali, BBVA, Arratiano, Carrocerías Arratia,...

Jakin badakigu enpresa guztiak ezin ditzakegula multzo berean sartu; enpresen sailkapena egiterakoan irizpide desberdinak erabil daitezke: langileen kopurua, negozioen kopurua, fakturazioa, jarduera ekonomikoa, era juridikoa, jabetza, e.a.

Enpresen tamainaren arabera edota langileen arabera, enpresak honela sailkatzen dira:

Langileen kopurua	Mikroenpresak	Enpresa txikiak	Enpresa ertainak	Enpresa handiak
	< 10	<50	<250	>250

Guk lan honetan hiru arlo nagusitan banandu ditugu:

1.- Tamaina handiko enpresak: BATZ, S.Coop., Ormazabal eta Tarabusi CIE Automotive, S.A. (hirurak Igorrekoak).

BATZek 550 langile inguru ditu, Tarabusi CIE Automotivek 305 langile-edo, eta Ormazabalek 300 langile gutxi gorabehera.

Adibide bezala BATZ enpresa hartu dugu, batez ere, gure Ikastegiak harreman estu-estuak dituelako enpresa honekin betidanik. Ehundaka ikasle eta ikasle ohik dihardute lanean gaur egun bertan.



BATZ: 1963an sortu zen.

Hainbat produktu egiten zituzten garai hartan. Handik urte batzuetara, automozio-sektorerako trokelak egiten espezializatu ziren. Horixe izan zen negozio-iturri nagusia enpresaren lehenbiziko hogeitertan.

1982an automobil-industriarako sistemak eta estanzazio-piezak egiteari ekin zioten.

Trokelgintza sailak izugarritzko garrantzia hartu du langintza berrian eta berrogeitabi urte hauetan automozio sektoreko bezeroentzat hornitzaile nagusienetako bat bihurtu da BATZ.

2.- Tamaina erdiko enpresak: Araluce, S.A., (IGORRE); GEA Ibérica, S.A., (IGORRE); Lemona Industrial, S.A., (LEMOA); Larón, S.A., (LEMOA); Tecnichapa, S.A., (IGORRE); Hijos de Lorenzo Sancho, S.A., (IGORRE); Aldetu, S.A., (LEMOA); Aliasa (IGORRE); Incoesa (IGORRE); Ebay, S.A. (IGORRE); Negarra, S.A. (LEMOA),...

Enpresa hauetako langileen kopurua 50etik 200era bitartekoa da eta gure eskualdean duten garrantzia uka ezinezkoa da, gainera, metalezkoak dira ia gehienak.

Zulaibarko ikasleek, heziketa-zikloko ikasketak amaitu ondoren, lan-praktikak egiten dituzte aipatutako hainbat enpresetan.

3.- Tamaina txikiko enpresak eta “mikroenpresak”: enpresa hauen zerrenda oso luzea da baina arlo hau sakonago aztertzea erabaki dugu, oso ugariak direlako Arratian.

Ondoko hauek aurkitu ditugu:

Pedro Mari
Autobusak
(IGORRE); Axpe
Goikoa Erretegia,
S.L. (DIMA);
Amuriza Hnos. , C.B.
“El Arratiano”
(ZEANURI); Hotel
Arantza (IGORRE);
Construcciones Ekin,
S.L. (AREATZA);
Limpiezas Arratia,
S.L. (AREATZA);
Pirotecnia Astondoa
(AREATZA); Agarre
Landareak, S.L.
(ARTEA); Gorosti. S.
Coop. (ARTEA);



Bernaola Zerrategia, S.L.
(ARTEA); Urtxintxa, S.L.
(ARTEA); Adis, Alquileres
Diversos, S.L. (BEDIA);
Aislantes Eléctricos Fertor,
S.A. (BEDIA); Bilbo Zinc,
S.L. (BEDIA); Hierros Crisol
S.L. (BEDIA); Industrias Bost,
S.A. (BEDIA); Montajes
Ledesma, S.L. (BEDIA);
Talleres Mecánicos Asimer;
S.L. (BEDIA); Aretxa
Altzariak (LEMOA); Okre
(IGORRE); Tecsol 2000, S.L.
(BEDIA); Zinbe, S.L.



(BEDIA); Aner zerbitzuak (DIMA); Maderas Ikuza (DIMA); Abrazaderas y Soportes,
S.L. (IGORRE); Arbisa, S.L. (IGORRE); Cristalería Bizkor, S.L. (IGORRE); Miba S.
Coop. (IGORRE); Forjados y Cálculos AYS (IGORRE); Construcciones Lezatxu
(DIMA); Felipe Garaigordobil, S.C. (IGORRE); Garbiker AB, S.A. (IGORRE);
Gráficas Arratia S.L. (IGORRE); Mest S.A. (IGORRE); Industrias BAI 1996 S.L.L.
(IGORRE); Varinort (IGORRE); Moldistek, S.L. (IGORRE); Servilec, S.L.
(IGORRE); Sierras y Derivados, S.L. (IGORRE); Acabados Seperficiales Berritzen, S.L.
(LEMOA); Afilados Lemoa, S.L. (LEMOA); Construcciones Amuriza, S.L. (LEMOA);
Carpintería La Cruz (LEMOA); Maderas Erauzkin, S.L. (LEMOA); Ibaplas S.L.
(LEMOA); Marmolería Lemoa, S.L. (LEMOA); Metalúrgica Zornotza, S.L.
(LEMOA); Ingeniería de Poliuretano Flexible, S.L. (LEMOA); Talleres ZIC, S.A.L.
(LEMOA); Haulolan Altzuste, S.L. (ZEANURI); Talleres EMEN, S.L. (ZEANURI);
Ibaigane, S. Coop. (LEMOA); Carrocerías Arratia (AREATZA); Urizar Motor, S.L.
(BEDIA); Atutxa Anaiak, S.L. (IGORRE);

Fontanería Aguirre (IGORRE); Mecanizados y Husillos, S.L. (IGORRE); Medrano
Jatetxea (IGORRE); Bizkai Motor Racing (LEMOA); Lur 2000 (LEMOA),...

Langileen kopurua enpresa hauetan aztertzeko 45 enpresa txiki eta mikroenpresen datuak erabili ditugu:

	1etik 5era		6tik 10era		11tik 20ra		20tik gora	
	Absolutuak	Porzentaiak	Absolutuak	Porzentaiak	Absolutuak	Porzentaiak	Absolutuak	Porzentaiak
INDUSTRIALA (20)	5	%25	4	%20	6	%30	5	%25
EZ-INDUSTRIALA (25)	16	%64	8	%32	-	-	1	%4

Industri alorreko enpresek ez-industrialek baino langile gehiago dutela argi dago, mikroenpresa asko zerbitzuetara dedikatzen direlako, batik bat. Enpresa txikien artean koka dezakegun Zulaibar Lanbide Ikastegiari buruz zertzelada batzuk emango ditugu.

ZULAIBAR: 1955. urtean sortu zen “Escuela de Aprendices” izenarekin. Zulaibar auzoan, gaur egungo eraikuntzan, 1968. urtean kokatu zen.

Hasiera batean, eskolaren helburua hauxe zen: eskualdeko inguruetara lan bila zihoan jende gazteari gutxieneko lanbide-kualifikazio bat ematea. Zulaibar Ikastegiak eskualde berri eta hobeago baten itxaropen diren ehunka gazte bildu eta biltzen ditu.



1955. urte hartatik hona ilusioz eta lehia handiz hasitako lanak bere emaitzak eman dituela uste dugu. Guk geuk ere, aurrerantzean gogor eutsiko diogula adieraz dezakegu. Arratia haraneko L.H.ko Ikastegi bakarra dela esan dezakegu, Eusko Jaurlaritzako “Ikastegi Integratuen” sarean egoteaz gain, prestakuntza alorrean ere ondoko hauekin kolaboratzen du zuzenki: lan saileko Egailan-Langairekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, HOBETUZekin, Enpresekin, Udaletxeekin, e.a.

Zulaibarren teknologi batxilergoa, erdi eta goi mailako heziketa-zikloak, lanbide hastapena eta irakaskuntza ez-arautuko ikastaroak ere eskaintzen dira gaur egun.

ENPRESEN ERAGINA INGURUMENEAN

ISO 14001 nazioarteko ziurtapena, Ingurumenaren Kudeaketari dagokiona hain zuzen ere, lortu duten Arratiako enpresen zerrenda hauxe da¹:

- AFESA MEDIOAMBIENTE, S.A. (BEDIA)
- ALFA DECO SUBCONJUNTOS, S.A. (LEMOA)
- BATZ, S. COOP, LTDA. , planta de troquelería y planta de sistemas (IGORRE)
- HORMIGONES LEMONA, S.A. planta de apario (LEMOA)

¹ AENOReko web orrialdetik ateratako ingurumen ziurtapenak eta 2005eko abenduan indarrean dirautenak.

- LEMONA INDUSTRIAL, S.A. (LEMOA)
- MORTEROS BIZKOR, S.L (IGORRE)
- ORMAZABAL Y CIA, S.A. (IGORRE)
- PRONUTEC, S.A. (LEMOA)
- TECAMI OFITAS, S.A. (LEMOA)
- TRANSPORTES LEMONA, S.A. (LEMOA)

AENORen ziurtapen honek zera aitortzen du: ingurumena kudeatzeko ezarritako sistemak txikitu egin duela jardueratik sortzen den ingurumen inpaktua eta, era berean, garapen iraunkorra sustatzen duela.

Hainbat enpresa egongo dira seguruenik aitorten ofizialeko ziurtagiriak lortzeko bidean edota prozesu horretan murgilduta. Guzti honek frogatzen digu ingurumenaren arloan Arratiako enpresak, batzuk behintzat, ahaleginak egiten dabiltzala garapen iraunkorraren alde.

Dena dela ez da nahikoa, gaur egungo egoera larria baino larriagoa dela begi-bistakoa da eta enpresen munduak eta gizarteak orokorrean konpromiso sendoa hartu behar du ingurumena zaintzeko eta babesteko.

Herri bakoitzean enpresa desberdin eta ugari dauden arren, Arratiako enpresen kontzentrazioa Igorreko Industrialdean eta Lemoako Mendieta poligonoan edota Bolunburun aurki ditzakegu bereziki. Industria-gune

hauek ekonomiarentzat oso onak diren arren, ingurunean eragin handia dute, dudarik gabe. Adibidez, gure gurasoek Arratiako erreketan igeri egiten zuten denborak ez daude hain urrun, baina gaur egun hanka bat sartzea ere ezinezkoa egiten zaigu. Zoritxarrez, ibai edota uraren poluzioa ez da ingurunean dagoen gaitz



bakarra, beste arazo larri batzuk ere aipa ditzakegu: zabortegiak, keak, airearen poluzioa, zaratak, hondakin industrialak, pestizidak erabiltzea, ozono-geruzaren hondatzea, klima-aldaketa, e.a.

Enpresetan 10 hondakin motatik gora aurki ditzakegu, horietako asko gainera oso arriskutsuak: olioak, fluoreszenteak, pilak, bateriak, azidoak, disolbatzaileak, plastikoak, txatarrak, CO₂, birutak egurrezkoak zein metalezkoak, eta abar luze bat. Urteik urtera hondakin horien kopuruak etengabe gora eta gora egiten du, bai Euskal Herrian eta bai mundu osoan ere.

Paisaiaren eraldaketa ere kontuan hartzekoa da: lurraren banaketa, lurzoru gehiegi okupatzea, harrobiak, nekazaritza eta abelazkuntzaren eragina, basoen ustiakuntza, lantegien kutsadura, e.a. Ekintza antropiko hauek, hau da, gizonaren eraginagatik sortzen direnak ezabatu beharko genituzke neurri egokiak hartuz, oso zaila izan daitekeen arren.

ONDORIO BATZUK

Gauzak honela jarraituz gero, gure semeek ezin izango dute naturaz gozatu. Arazo hau konpontzeko bide bakarra enpresa gehienek sortzen duten kutsadura murriztea eta kontrolatzea da.

Bestealde, energia berriztagarrien proiektuak apurka-apurka ezarri behar direla uste dugu, hala nola: eguzki instalazio fotovoltaikoak, termikoak, eolikoak, biomasazkoak, hidrauliko txikiak, pila metatzaileak, e.a.

Guztiok arazo honen aurrean zerbait egingo bagenu, pixkanaka-pixkanaka natura



konpontzea lortuko genuke, eta honela gure semeak osasun maila hobegoarekin biziko lirateke.

Bada zeregina Arratian eta baita Euskal Herri osoan ere!

EGILEAK

Mikel Uriarte (Igorre)

Beñat Etxebarria (Igorre)

Urko González (Galdakao)

Xabier Rekalde (Galdakao)

Xabier Etxabe (Basauri)

Ioritz Barrenetxea (Usansolo)

Jon Ander Urrutikoetxea (Galdakao)

Galder Gobantes (Zeberio)

Erik Fernández (Igorre)

Unai Etxebarria (Lemoa)

Ibai Galarza (Lemoa)

Xabier Olibares (Dima)

Josu San Millán (Galdakao)

Ikus daitekeenez, ez gara denok arratiarrak baina hori ez da izan oztopo, alderantziz, guztiz aberasgarria izan dela deritzogu.